

Beyond Rigidity. The unfinished semantic agenda of *Naming and Necessity*

SCOTT SOAMES

Oxford: Oxford University Press, 2002, ix+379 or.

‘Externalismo semantiko’, ‘erreferentzialismo’, ‘erreferentzia zuzenaren teoriak’ edota ‘*New Theories of Reference*’ bezalakoak Saul Kripke, Keith Donnellan, Hilary Putnam, David Kaplan edo John Perryrekin¹ lotu ohi dira. Halere, Scott Soames eta Nathan Salmon² dira, seguru asko, azken hogeitau urteotan autore erreferentzialista eta neo-russelliarren artean jarrera ortodoxoena erakutsi dutenak. *Beyond Rigidity*-n (hemendik aurrera BR) Soamesek halako ikuspegia defendatzen du modu zabalean; liburuaren azpтитuluan eta sarrean aipatzen denez, BR-ren helburua Kripkek *Naming and Necessity*-n (N&N) burutu gabe utzitako agenda semantikoa betetzea da. Hau da, sarritan aipatu ohi da N&N-k proiektu erreferentzialistaren lehen erdia (teoria deskriptibistaren kritika) betetzen duela, baina beste erdia (teoria erreferentzialista baten garapena) egiteko uzten duela. BR-ren helburu nagusia, beraz, halako teoria bat landu eta defendatzea da. Soamesek liburuan garatzen eta defendatzen dituen ideia nagusiak izen propioen semantikaren ingurukoak badira ere, aipatzekoa da azkeneko ataletan klase naturalen terminoen semantikaren inguruan egiten duen lana. Hau guztia, gainera, modu ulerterrazean azaltzen zaigu, nahiz eta batzuetan Soamesek defendatzen dituen tesiak onartzeko zailak izan.

¹ Kripke: *Naming and Necessity*, “Identity and Necessity”; Donnellan: “Reference and definite descriptions”; Putnam: “Meaning and Reference”, “The Meaning of ‘Meaning’”; Kaplan: “Demonstratives”, “Dthat”; Perry: “Frege on demonstratives”, “The problem of the essential indexical”.

² Salmon: *Frege’s Puzzle*, “A Millian Heir rejects the Wages of Sinn”; Soames: “Direct Reference, Propositional Attitudes and Semantic Content”.

BR osatzen duten hamaika kapituluak hiru zati desberdinetan bana ditzakegu. Lehenengo biek sarrera lanak egiten dituzte. Oro har, bi kapitulu hauetan Kripkeren lanari gainbegiratu bat ematen zaio, haren erronka eta hutsune nagusiak aipatuz. 3-8 kapituluek liburuaren zati garrantzitsuena osatzen dute. Izen propioen semantikari buruzko ikuspegi erreferentzialista ortodoxo bat garatzen du, halako teoriekin lotutako arazo eta gaiak (proposizio singularrak, jarrera proposizionalak, hitz hutsak, identitate perpausak, indexikoak, anbiguotasuna...) aztertuz. Azken hiru kapituluak klase naturalen terminoei buruzkoak dira.

Lehen bi kapituluek sarrera moduko bat osatzen dute. Lehenengoan N&N-k bete gabe utzitako agenda zein den azaltzen du laburki, eta arazotsutzat jotzen dituen Kripkeren hainbat ideia eztabaidatzen ditu. Adibidez, izen propioek inolako eduki deskriptiborik ez edukitzean oinarrituta, *Fa* perpausak *p* proposizioa adierazten badu eta *a* eta *b* izen propioek erreferentzia bera badute, *Fb*-k ere *p* proposizioa adierazten duela ondorioztatu behar dugula defendatzen du Soamesek: erreferentzia bera duten izen propioak beraien artean ordezkia ditzakegula perpausaren edukian eragin gabe. Hau da, $a=a$ perpaus batek eta $a=b$ beste perpaus batek ($a=b$ egiatzkoa bada) proposizio bera adierazten dutela mantendu behar dugu eta, horregatik, Kripkeren aurka, identitate perpaus oro beharrezkoa eta *a priori* (eta ez *a posteriori*) dela dio. Bigarren kapituluak Kripkeren ideien aurka aurkeztutako izen propioen interpretazio deskriptibista batzuk azaldu eta kritikatu ditu.

3-8 kapituluetan izen propioen semantika erreferentzialista bat garatzen du eta halako ikuspegi semantikoaren aurka aurkeztu ohi diren arazoei erantzuten saiatzen da. Honakoa da BR-n aurkeztu den tesi nagusia: izen propio baten (edo bestelako edozein termino singularren) edukia, izenaren ekarria proposizioari, erreferitzen duen objektua bera da. Hau da, 'Oihana' izen propioaren edukia Oihana bera da, bere erreferentzia, Oihana objektua edo pertsona. Izen propio ororen edukia erreferitzen duen objektu partikularra den heinean, izen propio bat duen *S* perpaus orok adierazitako *p* proposizioak objektu partikularren bat edukiko du osagaitzat. 'Oihana' izenak 'Oihana ilegorria da' perpausak adierazten duen proposizioari egindako ekarria Oihana bera da; beraz, Oihana bera 'Oihana ilegorria da' perpausak adierazten duen proposizioaren parte da³. Hau da, izen propioaren bat osagaitzat duen perpaus orok proposizio singular bat adierazten du.

Proposizio singularrak osagaitzat objektu "arrunten" bat duten proposizioak dira. Erreferentzia zuzenaren aldeko teoriaren arabera, termino singular ororen ekarria proposizioari erreferitzen duten objektua da. Horregatik, *S* perpaus

³ Hau da, Kaplanek "Dthat" artikuluan zioen moduan: "that's right, John himself, right there, trapped in a proposition" (edota gure kasuan, "horixe, Oihana bera, hortxe bertan proposizio batean harrapatuta").

batek termino singularren bat badu, adierazten duen p proposizioak objektu partikularren bat edukiko du osagaitzat. *Fa* formako perpaus ororen edukia (non F predikatu bat den eta a termino singular bat) propietate batek eta objektu partikular batek osatutako sekuentzia egituratua da. Horra adibide batzuk:

- (1) Oihana ilegorria da.
- (2) 9 bikoitia da
- (3) Gose naiz [Oihanak esana]

(1)-ek adierazitako proposizioa <Ilegorria, Oihana> sekuentzia da, Ilegorri propietateak eta Oihana partikularrak osatuta ((2)-k adierazitako proposizioa <Bikoitia, bederatzi> da, (3)-k adierazitakoa <Gose izan, Oihana>). Beraz, bai (1)-ek, bai (2)-k eta bai (3)-k proposizio singular bat adierazten dute, hots, objektu partikular bat osagaitzat duen proposizio bat. Objektuak proposizioan zuzenean hartzen duenez parte, proposizioa zuzenean da objektuari buruzkoa, eta ez objektua identifikatzen duen eduki deskriptiboren bat proposizioaren parte delako (fregean ortodoxo batek defendatuko lukeen moduan). Horregatik, azken finean, <Ilegorria, Oihana> proposizioak Oihana ilegorria dela ematen du ezagutzera.

Tesi erreferenzialista honen alde argudiatu nahian, Soamesek komunikazioaren halako eredu ximple bat proposatzen du. Eredu honek proposizio bat adieraztearen eta ezagutaraztearen artean bereizten du. Esaldi bat egiten dugunean informazio kantitate bat ematen dugu ezagutzera, hainbat proposizio ezagutarazten dugu. Baina ezagutarazitako proposizio horietatik bat bakarrik adierazten dugu; Perpaus baten esaldi batek adierazitako proposizioak perpausaren eduki semantikoa osatzen du. Bestalde, perpaus bakar baten esaldi desberdinek proposizio desberdinak ezagutaraz ditzakete. Halere, guztiek ezagutarazten dute perpausaren eduki semantikoa. Hau da: perpaus baten eduki semantikoa, perpausak adierazten duen proposizioa, perpausaren esaldi guztiek ezagutarazten duten proposizio bakarra da⁴.

Gauzak honela, izen propio baten edukia ezin dela eduki deskriptiboren bat izan defendatzen du Soamesek. Suposa ditzagun (1)-en ('Oihana ilegorria da') hainbat esaldi. Esaldi horien bitartez proposizio desberdinak ezagutaraz ditzakegu, hala nola *Motorrean Errealaren pegatina duen neska ilegorria dela* edota *Rubenen neskalguna ilegorria dela*. Hitzunak eta entzuleak 'Oihana' izen propioa *motorrean Errealaren pegatina duen neska* edo *Rubenen neskalguna* eduki deskriptiboekin lotzen badute, proposizio horiek ezagutaraziko dira esaldien bitartez, bestela ez. Hau da, halako eduki deskriptiboek osatutako proposizioen ezagutaraztea hitzun eta entzuleen arabera da. Baina zera

⁴ Perpausak ez badu indexikorik edo termino anbiguorik eta perpausaren esaldia bere esanahi literalarekin egiten bada (ez-metaforikoki, ez-ironikoki...).

da kontua, Soamesen arabera, ezinezkoa dela hiztun eta entzule orok 'Oihana'-rekin (edo bestelako edozein izen propiorekin) lotzen duen eduki deskriptiborik aurkitzea. Horregatik, halako edukiren batek osatutako proposizio bat ezin da perpausaren eduki semantikoa izan, bai baitago proposizio hori ezagutarazten ez duen esaldi posiblerik. Beraz, (1)-en esaldi guztiek ezagutarazten duten proposizio bakarra, (1)-en eduki semantikoa osatzen duen proposizioa, <Ilegorria, Oihana> proposizio singularra da.

Hurrengo kapituluak anbiguotasunari buruz, partzialki deskriptiboak diren izenei buruz eta indexikoei buruz dira. Aipatu bezala, Soamesen arabera, perpaus baten eduki semantikoa, adierazten duen proposizioa, perpaus horren esaldi orok ezagutarazten duen proposizio bakarra da. Bestalde, termino singular ororen edukia, proposizioari egiten dion ekarria, erreferitzen duten objektua bera dela ere defendatzen du. Bi tesi horiek batera mantentzeak arazoak ditu indexikoeekin. Suposa dezagun honako (4) perpausa

(4) Ni gose naiz

eta bere bi (4a) eta (4b) esaldi desberdin, lehena Oihanak eta bigarrena Mainerrek eginak. (4)-k adierazitako proposizioa bere esaldi orok ezagutarazitako proposizio bakarra bada, badirudi hori *esaldi hau egiten duena gose da* bezalako proposizioen bat izango dela ((4a), (4b) eta beste esaldiak egiazkoak baitira bbb horiek egiten dituen gose bada). Baina orduan 'Ni'-k proposizioari egiten dion ekarria ezin da erreferitzen duen objektua izan, indexikoarekin lotutako eduki deskriptibo bat baizik (*esaldi hau egiten duena*). Bestalde, termino singular ororen edukia terminoak erreferitzen duen hori bada, 'Ni'-ren ekarria proposizioari Oihana bera izango da (4a)-n, eta Mainer (4b)-n. Baina, orduan, (4a)-k eta (4b)-k ez dute proposizio bera adierazten, (4a)-k <Gose izan, Oihana> proposizioa adierazten baitu, eta (4b)-k <Gose izan, Mainer>, eta ez dirudi (4)-ren eduki semantikoa bi proposizio horietako bat denik bestea alde batera utzita. Horregatik, badirudi, indexikoak dituzten perpausari buruz behintzat, Soamesek bi tesien artean aukeratu behar duela: edota indexikoen ekarria proposizioari ez da erreferitzen duten objektua, edota indexikoren bat duen perpaus batentzat ezin dugu esan bere esaldi guztiek bere eduki semantikoa ezagutarazten dutenik. Soamesek lehenengoaren alde egiten du: indexiko baten ekarria proposizioari, indexiko baten eduki semantikoa, erreferitzen duen objektua da. Beraz, indexiko baten eduki semantikoa desberdina da testuinguruaren eta esaldiaren arabera. (4)-k (eta berdin, indexikoren bat duen edozein perpaus) ez dauka eduki semantiko finkorik, esaldiaren arabera da.

Jarrera proposizionalentzat ere badago tartea BR-n. Jarrera proposizionalak adskribatzen dituzten terminoak semantikoki inozenteak direla defendatzen du Soamesek. 'Jakín', 'uste' edo 'espero' bezalako terminoek subjektu bat eta proposizio bat erlazionatzen dituzte. 'A-k S uste (jakín, espero...) du' bezalako perpaus baten eduki semantikoa, A-k S-k *testuinguru hartan adieraz-*

ten duen proposizioa uste (jakin, espero) duela bezalako proposizio bat da. Jarra proposizionala adskribatzen duen terminoak ez du perpausean sartzen duen perpausaren (kasu honetan, S-ren) edukian eragiten⁵.

BR-ko azken hiru kapituluak termino generalei eta klase natural terminoei buruz dira. Kripkek izen propioen eta klase natural terminoen arteko halako paralelismo bat defendatzen du N&N-n. Kripkeren arabera, klase natural terminoak designatzaile zurrinak dira; ez dira, beraz, deskribapen multzoekiko sinonimoak. Ikerketa zientifikoak klase natural baten parte izateko nahikoak eta beharrezkoak diren propietateak aurkitu ditzake eta, horregatik, horiekin osatutako identitate teoriko perpausak ('Ura H₂O da' adibidez) beharrezkoak eta *a posteriori* dira.

Soamesek Kripkeren tesiei kritika zabala egiten die. Kripkek 'klase natural termino' zabalegi erabiltzen duela dio. Kripkeren arabera klase natural terminoen barnean sar daitezke izen arrunt zebagarriak ('mendi', 'tigre', 'patata'), masa terminoak ('ur', 'urre') edo adjektiboak ('bero', 'solido'). Soamesen arabera, ez dago termino mota desberdin horiek mota berekoak bailira interpretatzeko arrazoirik. Bestalde, horien eta izen propioen arteko paralelismoa ez dagoela justifikatuta era azaltzen du. Izen propioek funtzio designatibo bat dute lehenik, izen arrunt eta bestelakoek funtzio predikatibo bat. Horregatik, Soamesen iritziz, behin izen propio eta klase natural terminoen arteko paralelismoa hautsita, Kripkek klase natural terminoen inguruan defendatutako tesiak aztertzerakoan bi galdera nagusiri eman behar zaio erantzuna:

- a) Zer da klase natural predikatu batentzat zurruna izatea?
- b) Zer da klase natural terminoek osatutako perpaus batentzat identitate teoriko perpaus bat izatea? Beharrezkoak al dira perpausok?

Soamesen arabera, ez dago argi zer den predikatu bati buruz zurruna dela esatea. Ez dago argi predikatuek objektu bat erreferitzen ote duten eta, horregatik, arraroa da predikatu batek mundu posible orotan objektu bera erreferitzen duela baieztatzea. Bestalde, identitate teorikoei dagokienez, Soamesek bereizketa bat egiten du. Horren arabera, bi klase natural termino mota daude: klase natural termino *singularrak* ('ur', 'patata', 'lursagar') eta klase natural termino *konplexuak* ('H₂O', '74 zenbaki atomikoko materia'). Klase natural termino konplexuen eduki semantikoa propietate bat da, klase natural termino sinpleena erreferitzen duten hori. Horregatik, Soamesen arabera, klase natural termino sinplez osatutako identitate teorikoak ('patatak lursagarrak dira') beharrezkoak eta *a priori* dira, eta termino konplexuren bat dutenak ('ura H₂O da') beharrezkoak baina *a posteriori*.

⁵ Nahiz eta (leku falta dela-eta) testuan horri buruz ez dudan ezer esaten, aipatzekoa da Soamesek Larson eta Ludlowk eta Mark Richardek jarraera proposizionalen inguruan eraturako teoriari eskaintzen dion kapitulua. Larson eta Ludlowren eta Richarden teoriaren errekonstrukzioa bera eta geroago egindako kritikak zehatzak eta zorrotzak dira oso.

BR-n lantzen diren bi puntu aipatu nahi nituzke (laburki). Teoria erreferentzialista edo neo-russelliarren kontra argudio, arazo eta *puzzle* ugari aurkeztu ohi da. Halere, klasiko edo ezagunenak *Fregeren puzzlea* eta izen hutsen arazoa dira. BR-n bi arazo horiei erantzuna ematen zaie (luze eta zabal *Fregeren puzzle*-ari eta identitate perpausek sortutako antzeko arazoei, laburki izen propio hutsen arazoari). Hurrengo orrietan laburki azalduko ditut.

Aipatu dugu Soamesek (erreferentzia bera duten bi izen propioak proposizioari ekarri bera egiten dioten heinean) erreferentzia bera duten izen propioak elkar-ordezkarriak direla defendatzen duela. *a* eta *b* erreferentzia bera duten bi izen badira, *Fa*-k eta *Fb*-k proposizio bera adieraziko dute. Hau da, 'Donostia' eta 'San Sebastian' izenek erreferentzia bera duten heinean, (5)-(6) eta (7)-(8) perpausek eduki semantiko bera dute:

- (5) Errealak Donostian jokatzeko du
- (6) Errealak San Sebastianen jokatzeko du
- (7) Donostia San Sebastian da
- (8) Donostia Donostia da

Baina, *Fregeren puzzleak* dioenaren arabera, (5)-en esaldiarekin eta (6)-ren esaldiarekin ez dugu informazio bera ematen ezagutzera, posible baita norbaitek bata uste izatea bestea uste izan gabe. Bestalde, (7)-k eta (8)-k proposizio bera adierazten badute eta (8) analitikoa eta *a priori* bada, (7)-k ere hala izan beharko du. Soamesek eta Salmonek *Fregeren puzzlea* dela-eta hartutako jarrerari *biting the bullet strategy* deitu ohi zaio (hots, balari kosk egitearen estrategia). Ez dute arazoaren "irtenbide semantikorik" bilatzen. Besterik gabe, (5)-ek eta (6)-k, eta (7)-k eta (8)-k proposizio bera adierazten dutela onartzen dute. Halere, horrek ez du esan nahi (7) esatean eta (8) esatean informazio bera ematen dugunik ezagutzera. (7) eta (8) ahoskatuta biek semantikoki adierazten duten proposizioa (<Identitatea, Donostia, Donostia>, alegia) ematen dugu ezagutzera, baina horrez gain beste proposizio batzuk ere eman ditzakegu ezagutzera. (7) ahoskatuta proposizio batzuk ezagutarazten ditugu, (8) ahoskatuta beste batzuk, hiztunak eta entzuleak 'Donostia' eta 'San Sebastian' izenekin lotzen dituzten eduki deskriptiboaren arabera. Adibidez, (7)-ren esaldi baten bitartez *Bertan parrandan gauden hiria Gipuzkoako hiriburua dela* eman dezakegu ezagutzera, baldin eta hiztunak eta entzuleak 'Donostia' *bertan parrandan gauden hiria* eduki deskriptiboarekin lotzen badute eta 'San Sebastian' *Gipuzkoako hiriburua* eduki deskriptiboarekin lotzen badute. Halere, adierazten duen proposizioa <Identitatea, Donostia, Donostia> (*Donostia Donostia dela*, alegia) den heinean, Soamesek (7) analitikoa eta *a priori* ezagugarria dela baieztatzen du.

Jarrera proposizionalen adskripzio batzuk ere arazotsuak dira teoria honentzat. Sarritan, (9) bezalako gauzak esan ohi ditugu:

- (9) Jonek ez daki San Sebastian Donostia dela

Esan bezala, Soamesek jarrera proposizionalen adskripzioen inozentzia semantikoa defendatzen du. Honela, (9)-k adierazten duen proposizioa *Jonek ez dakiela Donostia Donostia dela* proposizioa da, 'San Sebastian Donostia da' perpausaren eduki semantikoa <Identitatea, Donostia, Donostia> den heinean. Baina hori faltsua da. Jonek badaki Donostia Donostia dela, besteak beste, badaki 'Donostia Donostia da' perpausak egiazko proposizio bat adierazten duela. Halere, Soamesen arabera, (9) esatean, horren eduki semantikoaz gain beste proposizio batzuk ere ematen ditugu ezagutzera. Normalean, Jonek tesuinguru horretan 'San Sebastian Donostia da' perpausaren esaldi batek ezagutarazten duen proposizioen bat ez duela uste ematen dugu ezagutzera. Honela, (9)-ren esaldi baten bitartez, besteak beste, *Jonek ez dakiela bertan parrandan gauden hiria Gipuzkoako hiriburua dela* proposizioa eman dezakegu ezagutzera. Eta hau egia izan daiteke. Honela, (9) bezalako perpaus bat esatean, adierazten dugun proposizioa faltsua den arren, egiazko beste proposizio batzuk ezagutzera ematea izan ohi da gure asmoa, eta hala egiten dugu BR-n esaten denaren arabera.

Bite the bullet estrategia koherentea da. Are gehiago, Soamesek halako jarrerara sinesgarri egiteko saiakera handiak egiten ditu (bai BR-n, bai beste artikulatu batzuetan). Halere, $a=b$ formako identitate perpausak analitikoak eta *a priori* direla baieztatzea, $a=b$ egiazkoa bada orduan 'A-k badaki $a=b$ ' beti egiazkoa izango dela baieztatzea eta 'A-k ez daki $a=b$ ' derrigorrez faltsua dela baieztatzea, arraroa da gutxienez. Are gehiago, identitate perpausen aprioritasunaren kasuan, badirudi badagoela Soamesek azaltzen ez duen zerbait. Soamesek *Fregeren puzzleari* ematen dion erantzuna honakoa litzateke lau hitzetan: nahiz eta identitate perpaus batek analitikoa eta *a priori* den proposizio bat adierazten duen, identitate perpaus bat esatean beste proposizio batzuk ere ematen ditugu ezagutzera. Proposizio horiek erabat informatiboak izan daitezke (*halako-eta-halako holako-eta-holako dela* eman dezakegu ezagutzera, adibidez), perpausaren esaldia bera informatibo bihurtuz. Badirudi erantzun honekin Soamesek ez diola *puzzleari* guztiz erantzuten. Proposizio hutsal bat adierazten duen perpaus baten esaldia informatiboa nolatan izan daitekeen azaltzen du, baina ez nola den posible konpetentea den hiztun batek analitikoa eta *a priori* den proposizio bat adierazten duen perpausa baztertea. h hiztun konpetentea bada, badirudi $a=b$ -k adierazten duen proposizioa ezagutzen duela. Proposizio hori analitikoa eta *a priori* bada, badirudi $a=b$ perpausa besterik gabe onartu beharko lukeela, *a priori* ezagutu baitezake proposizio hori; ez luke hartarako froga enpirikorik behar. Hau da, badirudi *Fregearen puzzlearen* arabera, Soamesek proposatutako tesi erreferentzialistak egiazkoak badira, hiztun konpetente orok *a priori* jakin beharko lukeela zein identitate perpaus diren egiazkoak eta zein ez. Konpetentzia linguistikoa ez da nahikoa zein identitate perpaus den egiazkoa jakiteko. Beraz, badirudi izen propioen semantikan defendatzen dituen tesiak defendatzen jarraitu ahal izateko, Soamesek halako azalpenen bat zor digula. Eta BR-n ez du halakorik ematen.

Lehenengo kapituluan Kripkek identitate perpausei buruz esaten dituenak aztertzean, *Strong Disquotation* deritzana aipatzen du Soamesek. *Strong Disquotation*-aren arabera, hiztun batek p proposizio bat uste du bbb p adierazten duen S perpausa onartzen badu. Soamesen arabera, *Strong Disquotation*-a faltsua da. Badirudi honek guztiak zeresan handia duela hiztun kompetente batek identitate perpaus bat nola bazter dezakeen azaltzeko orduan. Zera mantentzeko Soamesek, hiztun kompetente batek egiazko identitate perpaus bat baztertu dezakeela hark adierazten duen proposizioa uste izanda ere, *Strong Disquotation*-a faltsua baita. Halere, galdera bat erantzunik gabe geratzen da: nola gerta daiteke h hiztun batek perpaus bat ($a=b$) ulertzea, perpaus horrek adierazten duen proposizioa (\langle Identitatea, o, \rangle) uste izatea, eta halere h-k perpaus hori baztertzea? *Strong Disquotation*-a ukatzea nahitaezkoa da halako jarrera bati eutsi nahi dionarentzat, baina horren ukapenak bakarrik ez du azalpen positiborik ematen⁶. Seguru asko, honen inguruko zerbait, eduki semantikoaren transparentziaren inguruko eztabaida, da BR-n faltan gehien botatzen dena.

Hirugarren atalaren amaieran, Soamesek azpiatal labur bat (sei orrialdekoa) eskaintzen dio izen propio hutsen aferari. Bi izen huts klase bereizten ditu. Alde batetik, ‘Sherlock Holmes’ bezalako fikziozko izenak dauzkagu. Horiek ez dira izen propio hutsak, objektu abstraktu bati (fikziozko objektu bati) erreferitzen baitiote⁷. Holako izenez gain, jada existitzen ez diren, oraindik existitzen ez diren edota mundu honetan existitzen ez diren objektuen izenak dauzkagu:

- (10) Sokrates filosofoa da
- (11) Newman filosofoa da
- (12) Noman filosofoa da

Suposa dezagun Newman 2010. urtean jaioko den filosofo ospetsu bat dela, eta Noman beste mundu posible batean existitzen den filosofo ospetsu bat dela (eta ez dela mundu aktualean existitzen). ‘Sokrates’, ‘Newman’ eta ‘Noman’ izen hutsen adibide paradigmaticoak dira, mundu aktualean eta orain ez baita izen horiek erreferitzen duten objekturik existitzen (Sokrates ez da existitzen jada, Newman ez da existitzen oraindik, eta Noman ez da mundu

⁶ Nahiz eta BR-n esplizituki halakorik ez esan, argi dago Soamesek presentazio moduetan, errekonozimendu akatsetan eta uste erlazio triadikoetan oinarritutako erantzuna defendatzen duela (hala egiten du, gainera, BR-ren kritikei erantzunez idatzitako artikuluko batzuetan). Halere, liburuan bertan ez da esplizituki ezer esaten, nahiz eta (nire ustez) aurkeztutako teoriaren puntu garrantzitsuenetakoak izan. Bestalde, hemen azaletik aipatu besterik ez badugu ere, Soamesek Kripkeren beharrezko *a posteriori*-az egiten duen analisis interesgarria eta argigarria da oso; lastima *Strong Disquotation*-a (edota eduki semantikoaren transparentziaren aldeko antzeko tesiren bat) ukatzeak dakartzan ondorioak aztertzeari uko egitea.

⁷ Hau da, Soamesek Nathan Salmonek fikziozko izenen inguruan proposatutako ideiak defendatzen ditu (esplizituki).

honetan existitzen). Baina, printzipioz, (10)-ek, (11)-k eta (12)-k proposizioen bat adierazten dutela defendatu nahi dugu, egiazkoa ala faltsua den proposizioen bat ((10)-en kasuan behintzat, egiazkoa den proposizio bat adierazten duela mantendu nahi dugu). Soamesen arabera, nahiz eta ez diren existitzen, Sokratesek, Newmanek eta Nomanek eduki ditzakete propietateak. Hau da, Sokrates ez da existitzen, baina filosofoa da, greziarra da, eta Platonen irakaslea da. Badira existitzen ez diren baina propietateak dituzten objektuak. Objektu horiek izenak eduki ditzakete, eta (existitzen ez diren) objektu horiek dira izen horien edukia. Dakigunez, ‘Sokrates’, ‘Newman’ eta ‘Noman’ izenak diren heinean, horien ekarria (10)-ek, (11)-k, eta (12)-k adierazitako proposizioei erreferitzen duten objektua da. Horregatik, Soamesek halako perpausak existitzen ez diren proposizio singularrak adierazten dituztela mantentzen du.

Soamesen erantzuna oso arraroa da. Badirudi, existitzen ez den objektu batetik propietateak eduki ditzakeela baieztatzean, izate maila desberdinak-edo (nork daki) desberdintzen dituela. Hau da, badirudi objektu batzuk badirela existitu gabe (halere, hau guztia ez da BR-n azaldutakoaren halako interpretazio bat besterik: sei orrialdetan Soamesek objektu batzuek, existitu gabe, propietateak dituztela esan besterik ez du egiten). Ideia hauek halako ontologia meinongiari bat ekartzen digute gogora: badira existitzen ez diren objektuak, propietateak dituztenak eta existitzen diren objektu fisiko eta abstraktuengandik (nolabait) desberdinak direnak⁸. Ez dakit halako ontologia bat zein punturaino den onargarria. Dena den, ez dago argi Soamesek halako ontologia bat zein punturaino onartuko lukeen ere. BR-n izen propio hutsei eskainitako atala irakurtzean faltan botatzen da ekarpen ontologiko zabalago bat. Ezin da esan, besterik gabe, badaudela propietateak dituzten objektu inexistenteak, eta egunero erabiltzen ditugun perpaus batzuek proposizio inexistenteak adierazten dituztela, gero halako objektu eta proposizioen estatus ontologikoari buruz ez bada ezer argitzen (Soamesek egiten duen gauza bakarra, orokorrean Salmonen “Existence” eta “Nonexistence” artikuluetan proposatzen denarekin ados dagoela esatea da).

*Ekain Garmendia**

LOGOS - Universitat de Barcelona

⁸ Honek guztiak, noski, zerikusi zuzena dauka mundu posibleen ontologian aktualisten eta errealista modalen artean ematen den eztabaidarekin eta denboraren filosofian presentisten eta eternalisten artean ematen den eztabaidarekin. Halere, zoritxarrez, BR-n halako gaiak ez dira aipatu ere egiten.

* Lan hau egiteko Eusko Jaurlaritzaren doktorego aurreko beka baten laguntza izan dut.